

Aretxabaletako emakume eta gizonen III. Berdintasunerako Plana 2030

2025eko abendua





DAITEKE GIZARTE AHOLKULARITZA

URDANETA KALEA, 18, DONOSTIA
www.daiteke.eus

emakumeen eta gizonen
berdintasunerako
lankidetzaren erakundea



entidad colaboradora
para la igualdad de
mujeres y hombres



Berdintasunaren
Aukerak indartzen

AURKIBIDEA

1. Sarrera	4
2. Araudi Markoa	5
3. Berdintasunerako Plana 2030	8
3.1. Ebaluazio-diagnostikoaren ondorio nagusiak	8
3.1.1. II. Berdintasunerako Planaren betetze maila	8
3.1.2. Diagnostikoaren 11 gako nagusiak.....	12
3.1.3. III. Berdintasunerako Planaren erronka nagusiak.....	13
3.2. Lan prozedura	14
3.3. Planaren egitura	17
3.4. Printzipio gidariak	22
3.5. Aurrekontua	23
3.6. Kudeaketa-sistema	24
3.6.1. Egiturak	24
3.6.2. Funtsezko elementuak	27
3.6.3. Inpaktu-adierazleak	28
3.7. Ekintza-plana, arduradunak eta kronograma	37
4. Eranskinak	48

1. Sarrera

Aretxabaletako Udalak ibilbide luzea dauka berdintasun politiken garapenean. Ekimen eta proiektu ugari sortu dira urte hauetan zehar, eta berdintasun saila egonkortu da. Egindako ekimen horietako batzuk izan dira, besteak beste: jabetze eskola, txoko feministaren parte-hartze prozesua, LGTBIAQ+ diagnostikoa eta jaietako gune moreak.

Era berean, zenbait dokumentu sortu dira udalaren barneko berdintasun politiken norabidea zehazteko helburuarekin: Emakume eta gizonen Berdintasunerako I. Barne Plana gauzatu zen 2024. Urtean, eta 2025. Urtean, berriz, sexu jazarpen eta sexuan oinarritutako jazarpen protokoloa sortu da.

Plan honek, azken urteetan egindako ibilbideari jarraituz, hurrengo urteetarako bide-orria zehaztuko du. Helburu horrekin, Planak oinarritzko esku-hartzearen ardatzak identifikatzen ditu, eta baita datozen urteetan zehar lehentasunezkoak izango diren helburu estrategikoak ere.

Plana diseinatzeko orduan, hauek hartu dira oinarritzat: 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena eta EAE-ko emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 estrategia.

Plan berri honek, udalaren konpromiso politiko eta instituzionalaren beste pauso sendo bat dakar, berdintasuna udalerraren eguneroko bizitzan eta etorkizuneko garapenean erdigunean kokatzeko.

2. Araudi Markoa

Aretxabaletako emakume eta gizonen III. Berdintasunerako Planaren oinarri dira azken urteotan nazioarte mailan eta estatu, autonomi erkidego edo udal mailan onartutako lege-testuak. Plan honek hainbat esparrutako araudiak hartu ditu erreferentzia eta lege-esparru gisa (nazioartekoa, estatukoa, erkidegokoa eta aldundikoa):

NAZIOARTEKOAK

- Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda, Nazio Batuen (Garapen Jasangarrirako Helburuak) (2015).
- Pekinen egindako Emakumeei buruzko IV. Mundu Konferentzia (1995)

EUROPA MAILAKOAK

- Europar Batasunaren Genero Berdintasunerako estrategia 2020-2025 aldirako.
- Europako Kontseiluaren Hitzarmena, emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako prebentzioari eta borrokari buruzkoa (Istanbulgo Hitzarmena, 2011).

ESTATU MAILAKOAK

- Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorra lortzekoa.
- Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunaren Neurriak (2017).

AUTONOMIA-ERKIDEGO MAILAKOAK

- 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena .
- EAE-ko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 2030 estrategia.

FORU ALDUNDIKOAK

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2018 Foru Agindua, ekainaren 20koa.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. Foru Plana 2025-2027 Gipuzkoan

UDALEKOAK

- Emakume eta gizonen berdintasunerako II. Plana (2019).

- Hezkuntza ez-formalean ematen diren indarkeria matxista egoeren aurkako Protokoloa (2021).
- Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei arreta hobetzeko erakundeen arteko koordinazio eta arretarako tokiko II. protokoloa (2023).
- Emakume eta gizonen berdintasunerako I. Barne Plana (2024).
- Sexu jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpen protokoloa (2025).

Plana diseinatzeko orduan, hauek hartu dira oinarritzat: 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena eta EAE-ko emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 estrategia.

1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.

Berdintasunerako Euskal Lege honek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan botere publikoen jarduera gidatu behar duten printzipio orokorrak ezartzen ditu, eta zenbait neurri arautzen ditu, bizitzaren arlo guztietan emakumeek eta gizonek aukera eta tratu berdinak izan ditzaten sustatzeko eta bermatzeko, eta, bereziki, emakumeen autonomia eta ahalduzkoa bultzatzeko eta emakumeek jendartean, ekonomian zein politikan duten estatusa sendotzeko, horrela, egiturazko desberdinkeria eta sexuan oinarritutako diskriminazio-modu oro ezabatzeko, emakumeen aurkako indarkeria matxista barne dela.

“3.artikulua – Printzipio orokorrak.

Ondokoak dira emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal herri-aginteen jarduketa gidatu eta bideratuko duten printzipio orokorrak:

- Tratu-berdintasuna eta ikuspegi interseksionalaren integrazioa.
- Aukera-berdintasuna.
- Emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzea eta desagerraraztea.
- Dibertsitatea eta diferentzia errespetatzea.
- Genero ikuspegia txertatzea.
- Ekintza positiboa.
- Generoaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea.
- Ikuspegi interseksionala txertatzea.
- Sexu- edo genero-identitatearen, sexu-orientazioaren, gorputz-autonomiaren eta autodeterminazioaren garapen askea.

- Ordezkapen orekatua.
- Lankidetzeta, koordinazioa eta nazioartekotzea.
- Emakumeen ahalduntzea.
- Gizonen inplikazioa
- Parte-hartzea.
- Berrikuntza, gardentasuna eta kontu-ematea.
- Hizkuntza eskubideak babestea eta euskararen erabilera sustatzea.

Halaber, 7. artikuluan Euskal Autonomia Erkidegoko udalek dituzten funtzioak zehazten dira emakume eta gizonen berdintasunaren arloan.

Emakunderen emakume eta gizonen berdintasunerako 2030 estrategia

EAE-ko emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 Estrategiaren xedea da euskal botere publikoei beharrezko jarraibideak eta orientabideak ematea, beren politiken bidez egungo gizarte-antolaketa patriarkalaren ereduaren alternatiba bat eraiki ahal izateko. EAE-ko emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 Estrategiak 4 ardatz nagusi ditu: Gobernu ona, Emakumeen ahalduntzea, Gizarte-antolaketa bidezkoa, berdintasunezkoa eta jasangarria eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzak. Estrategiak 13 helburu estrategiko, 31 lan-ildo eta 128 helburu espezifiko jasotzen ditu.




EAE-ko emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 estrategia

3. Berdintasunerako Plana 2030

3.1. Ebaluazio-diagnostikoaren ondorio nagusiak

3.1.1. II. Berdintasunerako Planaren betetze maila

Aretxabaletako II. Berdintasunerako Planaren betetze maila aztertu da. Planak iraun duen bitartean, aurreikusitako 65 neurrietatik 39ri heldu zaie; hau da, **jardute tasa % 60koa** izan da (beteta edota erdizka beteta dauden ekintzak hartu dira kontuan).



II. Planak guztira 65 ekintza zituen, 5 esku hartze lerrotan banatuta: gobernantza, emakumeen ahalduntzea eta autonomia, sentsibilizazioa eta balioak aldatzea, zaintza erdigunera ekartzea eta indarkeria matxistarik gabeko herria. Esku-hartze lerro bakoitzeko jardute tasa aztertuta ikusi daiteke betetze maila altuena izan duten ardatzak honakoak izan direla: Zaintza erdigunera ekartzea eta Indarkeria matxistarik gabeko herria.

Ekite-tasa esku-hartze lerroaren arabera	Kopurua	Beteta	Erdizka Beteta	Bete gabe	Ekitea
Gobernantza	22	8	6	8	%63,6
Emakumeen ahalduntzea eta autonomia	11	5	3	3	%72,7
Sentsibilizazioa eta balioak aldatzea	18	5	4	9	%50
Zaintza erdigunera ekartzea	7	1	3	3	%85,7
Indarkeria matxistarik gabeko herria	7	3	1	3	%85,7
Guztira	65	22	17	26	%60

- **Bete diren ekintzak:** Berdintasun batzordea martxan jartzea eta horrekin batera Berdintasunerako Plana aurrera eramatea izan dira ekintza nabarmen nagusiak. Emakumeen ahalduntzerako hainbat ekintza egin dira, eta Kultura eta Kirol arloekin ekintza puntualak antolatu dira emakume erreferenteak ezagutzera emateko. Indarkeria matxistaren gaiari dagokionez, zenbait protokolo eratu dira, erantzun instituzionala emateko edota udal barnean sexu jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpen egoerei aurre egiteko. Bestetik indarkeria matxistaren arloan diharduten eragileen arteko koordinazioa hobetzeko protokoloa berritu da.
- **Bete ez diren ekintzak:** Aipatu beharra dago oro har, udal sailetan Berdintasunerako Plana ez dela erabili lan-tresna gisa. Sortu zenean helburu hori bazuen ere, batik bat berdintasun sailak erabili du tresna gisa. Bestetik, Berdintasunerako Planean jasotako zenbait ekintzak udaletik kanpo dauden eragileen parte-hartzea eskatzen zuen, eta horrek zaildu egin du ekintza konkretu batzuk aurrera ateratzea, eragile horiekin harremanik ez dagoelako edo elkarlanerako aukerarik egon ez delako. Azkenik, ondorioztatu da beste ekintza batzuk ez betetzearen arrazoia baliabide falta izan dela.

Jarraian, ebaluazio laburra jaso da, esku hartze lerroka edo ardazka.

Gobernantza

Berdintasunerako II. Planak berdintasun saila egonkortzea eskatzen zuen, alegia, baliabide ekonomiko eta pertsonalez hornitzea eta egitura sendoa ematea. 2019. urtean II. Berdintasunerako Plana onartu zen, eta harrezkero aurrerapauso handiak eman dira udal berdintasun politikei dagokionez. Saila egonkortu egin da, bai baliabide ekonomikoekin bai pertsonalekin. Berdintasun teknikariaren dedikazioa zabaldu da (2 egunetik 3 egunetara) eta 2025ean Berdintasunerako teknikariaren lanpostua sortu da Udalean.

Ardatz honetako ekintza guztiak ez dira gauzatu, barne-aldaketek, sailen arteko koordinazioak eta baliabide faltak eragina izan dutelako.

Emakumeen ahalduntzea eta autonomia

Berdintasun sailak bultzatuta emakumeen ahalduntzerako jarduera eta ekimen ugari egin dira azken urteetan, bai data esanguratsuetan baita urtean zehar ere. 2024ean sortu zen Jabetze eskolari esker eta Txoko Feministaren parte-hartze prozesuari esker, Aretxabaletan emakumeen ahalduntzeak erreferentzialtasun handiagoa lortu du.

Hala ere, emakume migratuei zuzendutako ekintzak edo emakume migratuekin egin den elkarlana oso puntuala izan da.

Aretxabaletan hainbat talde feminista eta LGTBIAQ+ talde daude. Identifikatutako erronketako bat Udala eta eragile horien arteko elkarlan eta koordinaziorako espazio egonkorrak eraikitzea izan da. Berdintasun batzordea sortzea lagungarria izan da Berdintasunerako Planaren garapenerako, eragileen arteko lankidetzarako eta garatutako ekintzei izaera kolektiboa emateko.

Sentsibilizazioa eta balioak aldatzea

Sentsibilizazioa ezinbesteko tresna da jendarte antolaketa bidezkoago eta berdinzaleagoa lortzeko, izan ere, pertsonen jarrera, balio eta sinesmenetan eragiteko bidea eskaintzen du. Urte hauetan zehar hainbat ekintza burutu dira ikuspegi feminista sustatzeko betiere herritarren parte-hartzea eta hausnarketa kolektiboa bultzatuz.

Landu diren gaietako batzuk hauek izan dira: emakumea eta kirolaren arteko harremana; emakumeen gorputzaren inguruko presio sozialak eta estereotipoak; amatasunaren bizipen anitzak eta horrek dakartzan erronkak; eta baita autodefentsa feminista ere.

Hezkidetzeta programa bateratu baten beharra identifikatu da. Urte hauetan lanketa puntualak egin badira ere, positiboa litzateke programa zabal bat eskaintzea. Eskolak haur eta gazteak sozializatzeko espazioak dira eta bertan edukiak ikasi ez ezik bestelako baloreak eta jarrerak ere jasaten dituzte. Hori horrela, indarkeria matxista prebenitzeko eta harreman osasuntsuak sustatzeko ezinbestekoa da haur eta nerabeekin lehen etapetatik lanketa egitea.

Zaintza erdigunera ekartzea

Azken urteotan urratsak eman dira zaintzaren alorrean. 2023an, Aretxabaletako zentro soziosanitarioaren gobernantza garatzeko prozesua martxan jarri zen; zaintza ikuspegi soziosanitario batetik aztertu zen erakunde ezberdinen arteko lanketa honetan, Udaleko Gizarte zerbitzuek parte hartu zuten, baita Osakidetzako langileek ere. Urte berean, zaintza ekosistema proiektua abiatu zen, bakardade egoeran daudenei zuzendutakoa. 2025eko amaieran, PROBA proiektua jarri zen martxan, 70 urtetik gorako eta egoera zaugarrian egon daitezkeen pertsoneri zuzenduta.

Oro har, zaintza-lanen inguruko lanketa feministarik ez da gauzatu. Identifikatutako behar nagusietako bat Aretxabaletako zaintzaren errealitatera gerturatzeko azterketa

edo diagnostikoa egitea da. Era berean, beharrezkotzat jotzen da zaintza-lanetan diharduten emakumeekin elkarlana sustatzea.

Indarkeria matxistarik gabeko herria

Aretxabaletan indarkeria matxistaren prebentzioarekin, esku-hartzearekin eta sentsibilizazioarekin harremana duten zenbait ekintza egin dira urte hauetan. Indarkeria matxistaren koordinazio mahaia urtero elkartzen da herriko kasuen inguruan hitz egiteko eta gai honen inguruan herrian dagoen errealitatea ezagutzeko.

Aipagarria da, baita ere, Aretxabaletako hezkuntza ez-formalean ematen diren indarkeria matxista egoeren aurkako protokoloa egin izana. Prozesu horretan parte hartu zuten hezkuntza ez-formalean aritzen diren Gaztelekuko hezitzaileek eta kale-hezitzaileek, eta baita eta Berdintasun, Gazteria, Gizarte Zerbitzu eta Prebentzio sailek ere.

Halaber, 2023. urtean berritu zen udalak indarkeria matxista egoerei erantzun instituzionala emateko protokoloa.

2025. urtean, ere Sexu jazarpen eta sexuan oinarritutako jazarpen protokoloa ere gauzatu da, udal barnean gerta litezkeen kasuei erantzuna emateko.

Azkenik, aipatu behar da 2025. urtean LGTBIAQ+ diagnostikoa gauzatu dela, herriko LGTBIAQ+ kolektiboaren errealitatea ezagutzeko eta indarkeria matxistak hartzen dituen forma ezberdinak ezagutzeko helburuarekin.

3.1.2. Diagnostikoaren 11 gako nagusiak

Diagnostikoaren **11** Gako



- 1** Aretxabaletako biztanleriari dagokionez 7.208 biztanle ditu, eta biztanleriaren banaketa parekoa da, %50,5 emakumeak eta %49,5a gizonak izanik. Gehienbat 20-64 urte bitarteko pertsonak bizi dira (4.140 biztanle) eta emakume eta gizonen kopurua antzekoa da. Zenbat eta zaharragoa biztanleria, orduan eta emakume gehiago daude; 65 urtetik gorako pertsonak Aretxabaletako biztanleriaren %18,6 dira (7.208 biztanletik 1.337). Emakumeak kolektibo horren %56 dira, eta euren pisua adinarekin handitzen doa: 85 eta 89 urte bitarteko taldean, emakumeak %67 dira (121 emakume eta 59 gizon), eta 90 urtetik gora, %75era heltzen dira (63 emakume eta 21 gizon).

Atzerritar jatorriko biztanleria %2tik beherakoa da adin talde hauetan, batez ere 65 eta 74 urte bitartean kontzentratzen dena. Guztira, 22 pertsonak (%1,6 adineko guztien artean) dituzte 95 urte edo gehiago, eta horietatik %82 emakumeak dira.
- 2** Errentari dagokionez emakumeen guztizko errenta (22.925€) gizonena baino baxuagoa da (32.259€). Emakumeen guztizko errenta gizonenarena baino 9.334€ txikiagoa da; hau da, %28,9 baxuagoa.
- 3** Emakumeen langabezia tasa %6,6koa da eta gizonena, aldiz, %3,8koa. Jarduera tasa emakumeena (%47,3) baxuagoa da gizonenarekin alderatuta (%52,1).
- 4** Jatorri atzerritarra duten pertsonen artean emakumeak dira nagusi %54,3. Jatorri atzerritarra duten pertsona gehienak %57a Amerikatik etorritakoak dira, jarraian Afrika (%26), Europa (%13) eta Asia (%4).
- 5** Kiroolari dagokionez Ibarra Kiroledegiko abonatuaren artean 2025ean emakumezkoak %47a dira eta gizonetzkoak %53a dira. Baina ikastaro guztien parte hartzea kontuan hartuz gero, ikusi daiteke emakumeek %76,4a direla eta gizonak %23,6a. Guztiz feminizatutako ikastaroak daude.
- 6** Kulturari dagokionez, kulturatik antolatzen diren ikastaroetan emakumeak dira nagusi (Zeramika %91 eta Sendabelarrak %100) baita Zaraia Aretoan egin diren ekitaldiei buruz jasota dagoen 2024ko informazioaren arabera emakumeen parte hartzea (%67,1) gizonena baino handiagoa izan da (%32,9). Liburutegiko bazkideetan ere emakumeak gehiago dira %54. Irakurle taldeetan ere gehiago dira emakumeak (%64,9).
- 7** Berdintasunerako politiken aurrekontuan igoera nabarmena egon da azken urteetan. Aurten, 2025.urtean aurrekontu osoaren 0,51 izan da.
- 8** Ludoteka eta Gaztelekuko zerbitzuen erabilerari dagokionez, haurren erabilerari dagokionez parekatua dela esan dezakegu (neskak %49,3 eta mutilak (%50,4). Gaztelekuko erabiltzaileetan aldea handiagoa dela ikusi daiteke: neskak %33,1 dira eta mutilak %66,9a dira.
- 9** Berdintasun saila sendotu egin da azken urteetan: 2023an, berdintasun teknikariarekin lotutako lanegunak bi egunetik hirura igo ziren, eta 2025ean udalak berdintasun teknikariaren lanpostu publikoa atera du, egonkortasun handiagoa emanez arloari.
- 10** Jabetze eskolaren sorrera eta Txoko feministaren parte hartze prozesuak abian jarri dira. Horrek espazio eta ekimen feminista ezberdinak martxa jartzeko aurrerapausu handia izan da.
- 11** Indarkeria matxistari erantzun instituzionala emateko protokoloa 2023an berritu zen. Indarkeria matxistaren koordinazio mahaia sortu zen Gizarte Zerbitzuak, Berdintasun sailak, Ertzaintzak, Zerbitzu Psikosozialak, Anbulategiak eta ikastetxeetako ordezkariak parte hartzen duten.

3.1.3. III. Berdintasunerako Planaren erronka nagusiak

3.1.4. Gobernu Ona

- **Berdintasun politika publikoak** modu iraunkorrean garatzea eta sail guztietan integratzea.
- **Genero-ikuspegia udalaren kudeaketan eta jardunean txertatzea** (aurrekontuak, kontratazioak, datu bilketa, datuen analisia, komunikazioa, planifikazioa...).
- **Udalaren konpromisoa sendotzea:** erakundeko langile eta arduradun politiko guztiek berdintasunaren aldeko jarrera aktiboa izatea eta prestakuntza jasotzea.

3.1.5. Emakumeen Ahalduntzea

- **Txoko feminista martxan jartzea**, emakumeentzat topagune, hausnarketa eta ahalduntze espazio gisa.
- **Ahalduntzerako ekintzak sortzea** Aretxabaletan bizi diren emakumeentzat: prestakuntza, autoestimua, lidergo feminista eta autonomia pertsonala lantzeko tailerrak.
- **Herriko emakumeen arteko sareak indartzea**, elkarrekintza, babesa eta esperientzien trukea sustatuz.
- **Haur eta gazteen ahalduntzea indartzea**, hezkidetzeta eta berdintasunaren balioak haur eta gazteen heziketan txertatuz, autokontzeptua eta autonomia landuz.

3.1.6. Gizarte-antolaketa bidezkoa, berdintasunezkoa eta jasangarria

- **Zaintza erdigunean jartzea**, ikuspegi interseksional batetik zaintza-lanen balioa aitortuz eta erantzukidetasuna bultzatuz.
- **Hezkidetzeta programak sustatzea**, haur, nerabe eta gazteen artean berdintasun-balioak eta bizikidetzeta parekidea lantzeko.
- **Mutil eta gizonen sentsibilizazioan indarra jartzea**, maskulinitate eredu berriak sustatuz eta genero-rol tradizionalak zalantzan jarritz.
- **LGTBIAQ+ aniztasunarekiko errespetua sustatzea**, diskriminaziorik gabeko bizikidetzeta bermatzeko, ikusgarritasuna handitzeko eta hezkidetzaren bidez estereotipo eta aurreiritziei aurre egiteko.

3.1.7. Emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzak

- **Prebentzioa eta kontzientziazioa** lehenestea, hezkidetzatik eta balio parekideen bidez.
- **Koordinazioan lanean jarraitzea**, eragile ezberdinen arteko elkarlana sustatuz.
- **Indarkeria matxistaren aurkako erantzun soziala** sendotzea, erantzukidetasuna eta sentsibilizazioa indartuz.

3.2. Lan prozedura

Aretxabaletako III. Berdintasunerako Plana eratzeko lan-prozesuak urrats ezberdinak izan ditu. Prozesuan zehar, informazioa bildu, kontrastatu eta aztertu da, bai udaleko sailen ikuspegia kontuan hartuz, bai herriko mugimenduen eta herritarren iritziak jasoz.



Aretxabaletako prozesua hasteko **Talde eragilea** sortu zen, berdintasunerako zinegotzia, berdintasunerako teknikaria eta Daitekeko aholkularitza teknikoak osatutakoa. Talde honen bidez prozesuaren nondik norakoak zehaztu dira, bai eta eman diren pausuak modu koordinatuan eta jarraituan adostu ere.

Aretxabaletako III. Plana eratu ahal izateko II. Planaren **ebaluazioa eta berdintasun egoeraren diagnostikoa** gauzatu dira, martxotik ekainera bitartean. Ebaluazioa egiteko udal sailletako arduradunekin **elkarrizketa sakonak** gauzatu dira, guztira 14 teknikariekin (12 emakume eta 3 gizon).

Herritarrentzako **galdetegi** bat prestatu zen herritarren iritzia eta Plan berrirako ekarpen eta proposamenak jasotzeko helburuarekin. Galdetegia 24 emakumek bete zuten eta 14 gizonek.



Halaber, herriko bi ikastetxeetako **haur eta gazteekin lan-saio** bereziak egin ziren euren iritzia jaso eta Plan berrirako ekarpenak jasotzeko helburuarekin. Kurtzebarrin, LHko saioan 10 lagunek hartu zuten parte (7 neskak eta 5 mutilek), eta DBH-ko ikasleekin egindako saioan, maila ezberdinetako hainbat ikaslek hartu zuten parte (6 neskak eta 6 mutilek). Arizmendi Ikastolako Almen zentroan, berriz, LHko saioan 12 lagunek hartu zuten parte (8 neskak eta 4 mutilek) eta DBHko ikasleen saioan, 17 lagunek (9 neskak eta 8 mutilek).



Udal gobernuarekin lan saio bat egin zen, diagnostikoaren eta ebaluazioaren ondorio nagusiak aurkezteko, eta bertan, Plan berriari begirako zenbait erabaki hartu ziren. Prozesu honek gobernu taldea aktiboki inplikatzeko ahalbidetu du, eta plana modu partekatuan lantzea.

Ebaluazio eta diagnostikoaren emaitzetatik abiatuta, III. Plana osatzeko erronkak zehaztu dira, baita helburu eta ekintzak ere. Ondoren, herritarrekin eta herriko mugimenduekin **entzute gunek** antolatu dira proposatutako ekintzak kontrastatzeko helburuarekin. Herritarren entzute gunean ez zuen inork parte hartu; herriko mugimenduekin egin zen entzute gunean, ordea, 6 pertsonak hartu zuten parte (4 emakumek eta 2 gizonez).



Planaren zirriborroa udaleko **sail guztietako teknikariei** helarazi zaie, euren ekarpenak, beharrezan irakurketa eta hobetzeko proposamenak jasotzeko. Prozesu honek barne-ikuspegi zabal bat bermatzen du, eta udalaren eguneroko jardunean berdintasunaren integrazioa modu koordinatuan eta eraginkorrean txertatzea ahalbidetzen du. Era berean, sail bakoitzak bere eremutik egiten dituen ekarpenekin Planaren aplikazioa errealistagoa, zehatzagoa eta udalaren eguneroko errealitatera egokitua izatea bilatzen da.

3.3. Planaren egitura

Aretxabaletako emakume eta gizonen III. Berdintasunerako Planak 4 ardatz nagusi izango ditu. **Gobernu ona; Emakumeen ahalduntzea; Gizarte-antolaketa bidezkoa, berdintasunezkoa eta jasangarria; eta Emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzak.**



Ardatz bakoitzak helburu estrategikoak, helburu espezifikoak eta horiek lortzeko ekintzak izango ditu. Guztira **84 ekintzez** osatuta egongo da Plana eta **2030**era arte egongo da indarrean.

1.GOVERNU ONA

Helburu estrategikoak			Helburu espezifikoak	Ekintzak
1.1.EMAKUMEEN BERDINTASUNAREKIKO POLITIKOA BERMATZEA	ETA	GIZONEN KONPROMEZU	G.O.1. Berdintasun politikak garatzeko baliabideak bermatzea.	3
			G.O.2. Udaleko arduradun politikoen sentsibilizazioa eta formakuntza bermatzea.	3
			G.O.3.Udaleko teknikari eta langileak berdintasun gaietan trebatzea.	5
			G.O.4. Udalean pertsonen informazioa jasotzen denean sistematikoki txertatzea sexuaren aldagaia. (Ahal den neurrian genero-adierazle berriak txertatu eta beste aldagai batzuk kontuan hartu, hala nola adina, jatorri etnikoa, klase soziala, hizkuntza, etab).	1
1.2.ADMINISTRAZIO-JARDUERAN BERDINTASUNA TXERTATZEA			G.O.5.Udal sailek egiten dituzten estatistika azterketetan genero ikuspegia txertatzea. (Kiroldegiko erabilera, kultur etxeko erabilera, ludoteka eta gaztelekuko erabilera...)	4
			G.O.6. Araudiaren, ordenantzen, planen eta udal-proiektu estrategikoen genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa ziurtatzea.	1
			G.O.7. Udalak egiten dituen komunikazioetan (jakinarazpenak, notiziak, kartelak, esku-orriak...) hizkera eta irudien erabilera inklusiboa bermatzea.	3
			G.O.8. Berdintasun-klausula eraginkorrak dituzten kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenen ehunekoa handitzea	3

1.3. BERDINTASUNEAN OINARRITUTAKO GOBERNANTZA-EREDUA FINKATZEA	G.O.9. Udaleko sailen arteko koordinazio-egiturak indartzea, sendotzea eta areagotzea berdintasunari zeharlerrokotasunetik heltzeko.	3
	G.O.10. Ordezkaritza- eta partaidetza-organoetan ordezkari-orekatua ziurtatzea.	3

2.EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

Helburu estrategikoak	Helburu espezifikoak	Ekintzak
2.1. EMAKUMEEN PROTAGONISMOA SUSTATZEA ETA EREMU GUZTIETAN EGINDAKO EKARPENAK AITORTZEA ETA BALORATZEA	E.A.1. Aitzindariak izan diren emakume kirolariei, idazleei, artistei ... aitortza egitea eta herriari zabaltzea.	2
	E.A.2. Kirol maskulinizatuetan nesken eta emakumeen parte hartzea sustatzea.	2
2.2. ARETXABALETAKO TXOKO FEMINISTA INDARTZEA	E.A.3. Txoko Feminista herrira zabaltzea eta ezagutzera ematea.	5
	E.A.4. Herriko emakumeen aniztasunari eta interesei egokitutako programazioa antolatzea.	3
	E.A.5. Neska gazteak Txoko feministara gerturatzea.	2
	E.A.6. LGTBIAQ+ aniztasunari buruzko sentsibilizazio ekintzak programazioan txertatzea.	2
2.3. EMAKUMEEN ERREALITATEETARA GERTURATZEA IKUSPEGI INTERSEKZIONAL BATETIK	E.A.7. Genero kontzientzia, autoestimua eta emakumeen autonomia sustatzen dituzten prozesuak sortu eta finkatzea, aniztasuna aintzat hartuta.	1
	E.A.8. Emakumeen arteko sareak sortzea.	2
	E.A.9. LGTBIAQ+ Emakumeen errealitatea kontutan hartzea.	3

3. GIZARTE-ANTOLAKETA BIDEZKOA, BERDINTASUNEZKOA ETA JASANGARRIA


Helburu estrategikoak	Helburu espezifikoak	Ekintzak
3.1. ZAIINTZEN EKONOMIA FEMINISTA	G.A.1. Aretxabaletako zaintzaren errealitatera gerturatzea, zaintza lanen balioa ikusaraztea eta sozialki aitortzea.	3
	G.A.2. Zaintza-lanetan emakumeek egiten duten lana jendartean aitortua izatea bermatzea	2
3.2. BERDINTASUNA ERALDAKETA SOZIALA LORTZEKO BEHARREZKO BALORE GISA AITORTZEA	G.A.3. Herrian berdintasunaren aldeko hezkuntza-proiektuak ezartzea eta indartzea.	4
	G.A.4. Herriko kirol-elkarteekin elkarlana garatzea, kirolean genero-ikuspegia txertatzeko eta ikuspegi hori oinarritzat izango duten lanketak bultzatu eta osatzeko.	2
	G.A.5. Mutil eta gizonak berdintasunean gaitu eta inplikatzea.	1
	G.A.6. Anitzak diren erreferenteak herrira ekartzea haur, gazte eta helduei beste errealitateak gerturatzeko.	1
	G.A.7. Gaztelekuan nesken parte-hartzea areagotzea.	2

4. EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

Helburu estrategikoak	Helburu espezifikoak	Ekintzak
4.1. INDARKERIA MATXISTAREN KONTRAKO SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA	I.M.1. Haur, gazte eta helduekin indarkeria matxistaren prebentzioa lantzea.	7
	I.M.2. Azaroaren 25etik harago, indarkeria matxistari buruzko sentsibilizazioa eta ikusgarritasuna handitzea.	2
4.2. INDARKERIA MATXISTARI AURRE EGITEKO ESKU-HARTZE KOORDINATUA SUSTATZEA	I.M.3. Indarkeria matxistaren kontrako mahaia egonkortzea.	1
	I.M.4. Udal barnean indarkeria matxistaren aurkako konpromisoa eta jarduna sendotzea.	2
	I.M.5. LGTBIAQ+ pertsonen pairatzen duten diskriminazioari aurre egiteko ekimenak burutzea.	2
4.3. INDARKERIA MATXISTARI ERANTZUNA EMATEA	I.M.6. Indarkeria matxistaren aurrean Udalaren erantzun irmoa bermatzea.	1
	I.M.7. Indarkeria matxista pairatzen duten emakumeentzako informazioa eskuragarri eta eguneratuta egotea.	3

3.4. Printzipio gidariak

Aretxabaletako emakume eta gizonen III. berdintasunerako Planak EAE-ko emakume eta gizonen berdintasunerako 2030 estrategian¹ azaltzen diren eta Berdintasunerako Legeak jasotzen dituen **16 printzipio gidariak** izango ditu oinarri. Printzipio hauek zeharka edo sistematikoki txertatuak egongo dira Plan honetan.



Era berean, printzipio horiek udalaren egituraren aurrerapauso bat ematea bultzatzen dute, berdintasuna ez dadin izan esku-hartze puntualen emaitza, baizik eta zeharka eguneroko lanean udalean txertatuta egongo dena. Helburua da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna udalaren politika publikoetan, barne antolaketan eta herri mailako eraldaketa-prozesuetan modu koherentean, bateratuan eta ikuspegi integralarekin txertatzea.

¹ EAE-ko emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2023 Estrategia.

3.5. Aurrekontua

Plana aurrera eramateko, Berdintasun Sailak ekintzetara bideratutako aurrekontu propioa izango du, eta urteko udal aurrekontuan jasoko da. Aurrekontu hori planeko ekintzak modu eraginkorrean gauzatzeko behar diren baliabide ekonomikoak eta materialak bermatzeko erabiliko da.

Urtero, plan operatiboa egingo da eta ekintzen plangintzaren eta lehentasunen arabera zehaztuko da gastuen banaketa, eta aurrekontua.

Halaber, udal sailek berdintasun planeko ekintzak aurrera eramateko baliabide ekonomikoak aurreikusteko ardura partekatua izango dute. Horrela, berdintasuna zehar-lerro bihurtzen da eta sail guztietan landuko da.

Berdintasun politiketarako 2026rako aurrekontua 158.353,13 eurokoa da, eta modu honetara banatzen da:

Berdintasun politikak 2026	
Kontzeptua	Zenbatekoa
Pertsonal gastuak	64.876,53 €
Ekintzetarako gastuak	93.476,60 €
Jabetze eskola (urtarrila-ekaina; iraila-abendual)	25.000,00 €
Emakume eta querrentzat aholkularitza juridiko zerbitzua	10.000,00 €
Gune morea (aratuste, andramaixetan eta sanmigeletan)	7.000,00 €
Pedagogia feministak	6.276,60 €
LGTBIAQ+ diagnostikoaren ekintzak	5.000,00 €
Egun esanguratsuak	3.000,00 €
Berdintasunerako planeko beste ekintzak	6.000,00 €
Berdintasunerako barne planeko ekintzak (klima inkesta, udaleko barne formakuntza...)	8.000,00 €
Hirigintza genero perspektibatik azterketa	18.200,00 €
Elkarteentzako dirulaguntzak berdintasuna bultzatzeko	5.000,00 €
Guztira	158.353,13 €

2026. urtea	
Udal aurrekontu osoa	13.134.312,73 €
Udalean berdintasun politiketara bideratutako berariazko aurrekontua	158.353,13 €
Udalaren aurrekontu osoarekiko zenbateko ehunekoa den Berdintasun politiketara bideratutako aurrekontua	1,21%

Sail bakoitzak urteko plan operatiboa zehaztu ahala, planean azaltzen diren ekintzak aurrera eramateko aurrekontua zehaztuko du.

3.6. Kudeaketa-sistema

3.6.1. Egiturak

Aretxabaletako III. Berdintasunerako Plana Udalean modu eraginkor eta koordinatuan garatuko dela ahalbidetzeko kudeaketa-sistema bat zehaztuko da. Hori horrela, Plana abian jartzeko, garatzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeke aurreikusitako lan-egiturak honako hauek dira:

- Berdintasun saila
- Udal arloetako arduradunak
- Koordinazio egitura tekniko-politikoa
- Berdintasun batzordea

Berdintasun saila

Aretxabaletako Udalaren Berdintasun saila arduratuko da plana sustatzeaz, koordinatzeaz eta jarraipena emateaz. Saila bi kidek osatzen dute: berdintasun zinegotziak eta berdintasun teknikariak. Astero bi kideek jarraipen-bilera egiten dute, eta hilaren amaierako jarraipen-bilera aprobetxatuko da planaren eta aurrekontuaren jarraipena ere, egiteko.

Eginkizunak:

- Plana behar bezala ezartzeko III. Planaren testuinguruan egiten diren ekintzak bultzatzea eta koordinatzea.
- Plan, ekintza eta helburu zehatzak garatzea, urteko plan operatiboaren bitartez.
- Genero berdintasunaren arloan aholkularitza ematea beste arlo eta organoei.
- Planaren garapenean inplikaturako egitura eta eragile guztien koordinazioa .
- Helburuen eta denboren betetze mailaren jarraipena.
- Neurri zuzentzaileen proposamena eta ezarpenaren balorazioa.
- Planaren komunikazioa.
- Entitate, elkarte eta herritarrekin parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko bideak ezartzea eta mantentzea.
- Koordinazio-guneak dinamizatzea eta parte-hartzea.
- Lortutako emaitzak mantentzeko eta Planaren tresnak kudeatzeko beharrezkoak diren erantzukizunak zehaztea.

Udal arloetako arduradunak

III. Plana zeharkakotasunaren ikuspegitik garatuko da, eta, beraz, sail bakoitzeko arduradunek beren lan-eremuan egiten diren ekintzak koordinatzeko eta haien jarraipena osatzeko eginkizuna izango dute.

Urteko plan operatiboa osatzeko, gauzatzeko eta jarraipena egiteko, berdintasun teknikariaren eta gainerako sailen arteko harremana jarraia izango da. Hala ere, gutxienez honakoak hartuko dira aintzat:

- Urteko plan operatiboa osatzeko, berdintasun teknikariak sailtako arduradunekin banakako bilerak izango ditu uztaila/irailean, urte horretako ekintzen egoera aztertzeke eta datorren urteko ekintzak eta aurrekontua adosteko.
- Urte hasieran, berdintasun teknikariak sail bakoitzeko arduradunei urte horretarako adostutako ekintzak gogoraraziko dizkie.

Eginkizunak:

- Urteko plan operatiboa egitea, urtearen hasieran.
- Jarduerak gauzatzeko eskuragarri dauden giza baliabideak eta baliabide materialak identifikatzea.
- Planaren ekintzen eta helburuen betetze mailaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.
- Neurri zuzentzaileak proposatzea, hala badagokio.
- Teknikariei zuzendutako berariazko prestakuntza-saioetan parte-hartzea.

Koordinazio egitura tekniko-politiko

Zeharkako ikuspegi beretik, erantzukizun politikoa duten pertsonen III. Plana ezartzeko ardura duten teknikariek koordinatuko dira, HERRITARRAK koordinazio taldeko bileretan, Plana bultzatu eta gainbegiratzeko.

Hauek dira HERRITARRAK taldeko kideak: ordezkari politiko moduan, Alkatea, eta arlo teknikoan, kultura teknikaria, gazteria, hezkuntza eta partaidetza teknikaria, euskara teknikaria, Gizarte zerbitzuetako arduraduna, Kirol teknikaria, enplegu teknikaria, udaltzainburua eta Berdintasun teknikaria. Funtsean, herritarrei zuzendutako zerbitzuak edo funtzioak dituzten sailtako ordezkariak osatzen dute

koordinazio talde hau. Taldeko bilerak astero egiten dira, sailen arteko koordinazioa hobetzeko eta sinergiak sortzeko asmoz.

Planari dagokionez, urtean bitan landuko da **HERRITARRAK** taldeko bileretan: lehenengo uztailan edo irailean, urteko plan operatiboaren gauzatze-maila aztertzeko eta hurrengo urteko plan operatiboaren lehen zirriborroa lantzeko (bereziki aurrekontua); bigarrena urte hasieran, aurreko urteko plan operatiboaren balorazioa aurkezteko eta urte horretako plan operatiboa aurkezteko. Berdintasun teknikaria arduratuko da bilera horien deialdiez.

Eginkizunak:

- Planean definitutako ekintzak gauzatzeko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak ematea, zeharkakotasuna oinarri hartuta.
- Planaren helburuen betetze-mailaren jarraipena eta kontrol politikoa egitea.
- Neurri zuzentzaileak proposatzea eta horien ezarpena baloratzea.
- Parte-hartze Organoetatik jasotzen diren proposamenen balorazioa egitea eta erabakiak hartzea (Berdintasun Batzordea).
- Erantzukizunak zehaztea eta lortutako helburuak mantentzeko beharrezkoak diren tresnak kudeatzea.
- Planaren komunikazioa.
- Politikariei zuzendutako berariazko prestakuntza-saioetan parte-hartzea.

Berdintasun batzordea

Udalak berdintasun gaien inguruko lanketa egiteko talde espezifikoak da, zeina bi berdintasun zinegotzik (EH Bildu eta EAJ/PNV), berdintasun teknikariak eta herriko mugimenduen ordezkari banak osatzen duten (honako elkarteetakoak: Erdu, Pikarraituz, Loixak, Atxabalta Harro). Organo hau udalerriko bizitza politiko, kultural, ekonomiko eta sozialeko ekintzen organo aholku-emaile, informatzaile, sustatzaile eta behatzailea da.

Gutxienez hilean behin egiten da Berdintasun batzordea, eta, beharren arabera, gune hori aprobetxatuko da, Planaren jarraipena egiteko edo ekintza puntualak antolatzeko.

Eginkizunak:

- III. Planaren jarraipena egitea, baita berdintasun-printzipioaren betetze mailaren jarraipena ere.
- Programa eta jarduera zehatzen onarpena sustatzea.
- Udalarekin elkarlanean aritzea ekintza puntualak antolatzeko.
- Berdintasunaren alde lan egiten duten eta lan egiteko prest dauden elkarteen arteko lankidetzaz bultzatzea.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan neurriak sustatzea eta iradokizunak egitea Udalari.
- Iritzia, azterketarako gaitasuna eta hausnarketarako espazioa sortzea.

3.6.2. Funtsezko elementuak

Urteko antolamendua

Aretxabaletako Emakumeen eta Gizonen III. Berdintasunerako Plana 2026tik 2030era egongo da indarrean, eta urteko plan operatiboan bidez jarriko da martxan. Udal sail bakoitzeko aurrekontuak onartzerakoan sail bakoitzak abian jarriko dituen ekintzak identifikatu eta planifikatuko ditu, bai eta ekintza horiek gauzatzeko aurrekontua ere.

Ekintzak hautatzeko, Planean hasieran aurreikusitako kronograma hartuko da kontuan, baina ekintzak aurreratzeko edo atzeratzeko beharrezko mailgutasunarekin, esku-hartzearen testuinguruak hala eskatzen badu.

Plangintza sistema hori urtero errepikatuko da, eta hori baliagarria izango da urtero Planaren garapena nolakoa izan den ikusteko baliagarria izango da.

Gauzate- eta jarraipen-prozesua

Berdintasunerako sailak urteko plan operatiboan jasotako ekintzak gauzatzeko laguntza eta aholkularitza eskainiko ditu, jasotako eskarien eta ezarritako lehentasunen arabera.

Sail bakoitzak bere ekintzen jarraipena eta betetze-mailaren ebaluazioa osatuko du urtearen amaieran, helburu horrekin diseinatu den lan-tresnaren bidez. Hori guztia kontuan hartuta, hurrengo urteari dagokion urteko plana egingo da.

Ebaluazio-sistema

Bildutako datu guztiekin, 2030ean azken ebaluazioa egingo da, aldez aurretik ezarritako helburuak lortzeko eta Planaren egokitasuna aztertzeko. Planean aurreikusitako ebaluazio-adierazleak (egitea + emaitza + inpaktua) aukera emango dute plangintzaren betetze maila neurtzeko eta oro har baloratzeko. Honakoak ekintza plan berriak planifikatzeko balioko du, Aretxabaletako emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ezartzen jarraitzeko.

Beraz, III. Planak hiru ebaluazio-maila izango ditu:

- **Betetze mailaren ebaluazioa:** Planean ezarritako ekintzetatik zenbat gauzatu diren aztertzea izango da helburua. **Ebaluazio jarraitua** da, Planaren indarraldian luzatuko dena eta azken txosten batean ateratako informazioa jasoko duena.
- **Emaitzen ebaluazioa:** Planean ezarritako helburu operatiboaren betetze maila baloratzeko; horretarako, aldez aurretik ezarri dira adierazleak. Ebaluazio hori **urtean behin egingo** da.
- **Eraginaren ebaluazioa:** Aretxabaletako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planaren emaitzetan oinarrituko da. Ebaluazio honen bitartez Planaren inpaktua edo eragina aztertuko da. **Planaren indarraldia amaitzean** osatuko da ebaluazio hori.

3.6.3. Inpaktu-adierazleak

Planaren inpaktu-adierazleak planaren gauzatze maila zehazten laguntzeko adierazle-sorta dira. Lan-tresna honek urteroko plan operatiboaren ebaluazioa modu azkar batean egitea ahalbidetzen du, baita Planaren iraunaldia amaitu eta gero Planaren betetze maila zenbatekoa izan den ikustea ere.

1. GOBERNU ONA										
Helburu espezifikoak	Ekintzak	Arduradunak	Adierazleak	2026	2027	2028	2029	2030	Betetze maila	Oharrak
G.O.1. Berdintasun politikak garatzeko baliabideak bermatzea.	G.O.1.1. Berdintasunerako III. Plana langileei eta herritarrei ezagutzera eman.	Berdintasuna	-Ezagutzera eman da BAI / EZ						BETETA	
	G.O.1.2. Berdintasunerako III. Plana garatzeko beharrezko baliabide ekonomikoak urtero esleitu.	Udal gobernua	-Baliabide ekonomikoak esleitu dira BAI/ EZ -Aurrekontuaren zenbatekoa						ERDIZKA BETETA	
	G.O.1.3. Urteroko plan operatiboa udal gobernuari azaldu.	Berdintasuna	-Azaldu da BAI / EZ -Aurkezpenean parte hartu duten pertsonen zenbatekoa (generoaren arabera banatua).						BETE GABE	

3.6.3.1. Gobernu Ona

1.GOVERNU ONA	
1.1.EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREKIKO KONPROMEZU POLITIKOA BERMATZEA	
HELBURUAK	ADIERAZLEAK
G.O.1. Berdintasun politikak garatzeko baliabideak bermatzea.	<ul style="list-style-type: none"> - III. Berdintasunerako Plana ezagutzera eman da BAI / EZ -Berdintasun sailaren urteroko aurrekontua -Berdintasunerako aurrekontuaren %koa udaleko gainontzeko aurrekontuarekiko.
G.O.2. Udaleko arduradun politikoen sentsibilizazioa eta formakuntza bermatzea.	<ul style="list-style-type: none"> -Arduradun politikoentzako egindako formazio kopurua. -Parte hartzea (generoaren arabera)

1.GOBERNU ONA

1.2.ADMINISTRAZIO-JARDUERAN BERDINTASUNA TXERTATZEA

HELBURUAK	ADIERAZLEAK
G.O.3. Udaleko teknikari eta langileak berdintasun gaietan trebatzea	-Langileentzako egindako formazio kopurua. -Parte hartzea (generoaren arabera)
G.O.4. Udalean pertsonen informazioa jasotzen denean sistematikoki txertatzea sexuaren aldagaia. (Ahal den neurrian genero-adierazle berriak txertatu eta beste aldagai batzuk kontuan hartu, hala nola adina, jatorri etnikoa, klase soziala, hizkuntza, etab.)	- Udal zerbitzuen % zenbatak jasotzen duen pertsonen informazioa sexuaren arabera bereizita. -Datu-bilketa sistema edo inprimakien % zenbatak txertatzen duten sexuaren aldagaia modu estandarizatuan.
G.O.5.Udal sailek egiten dituzten estatistika azterketetan genero ikuspegia txertatzea. (Kiroldetako erabilera, kultur etxeko erabilera, ludoteka eta gazteleku erabilera...)	-Genero-ikuspegia txertatzen duten udal sailen %a -Txostenetan aztertutako datuetatik, % zenbatak dute kontuan, genero ikuspegia. -Genero ikuspegiaren azterketetatik eratorritako neurri kopurua.
G.O.6. Araudiaren, ordenantzen, planen eta udal-proiektu estrategikoen genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa ziurtatzea.	- Genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa egin duten araudi, ordenantza eta plan estrategikoen %a. - Genero-eraginaren ebaluazioan identifikatutako desberdintasun egoerei erantzunez egindako aldaketa edo egokitzapen kopurua.
G.O.7. Udalak egiten dituen komunikazioetan (jakinarazpenak, notiziak, kartelak, esku-orriak...) hizkera eta irudien erabilera inklusiboa bermatzea.	-Komunikazio inklusiboa bermatzeko langileentzako zuzendutako euskarririk sortu da BAI/ EZ. -Komunikazio inklusiboari buruzko formazioa eskaini da langileei BAI/EZ -Parte hartzea (generoaren arabera) -Udaleko komunikazioa aztertzeke egin diren saiakerak urtean zehar.

1.GOBERNU ONA

1.3. BERDINTASUNEAN OINARRITUTAKO GOBERNANTZA-EREDUA FINKATZEA

HELBURUAK	ADIERAZLEAK
G.O.8. Berdintasun-klausula eraginkorrak dituzten kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenen ehunekoa handitzea	-Berdintasun-klausulak txertatzen dituzten kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenen kopuruaren %a. -Klausulen betetze-mailari buruzko jarraipen-txostenen kopurua.
G.O.9. Udaleko sailen arteko koordinazio-egiturak indartzea, sendotzea eta areagotzea berdintasunari zeharlerrokotasunetik heltzeko..	-Koordinaziorako urtean egindako bilera kopurua (HERRITARRAK koordinazio taldean)
G.O.10. Ordezkaritza- eta partaidetza-organoetan ordezkaritza orekatua ziurtatzea.	-Udaleko ordezkaritza- eta partaidetza-organoetan emakumeen eta gizonen arteko banaketaren %a

3.6.3.2. Emakumeen Ahalduntzea

2.EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

2.1. EMAKUMEEN PROTAGONISMOA SUSTATZEA ETA EREMU GUZTIETAN EGINDAKO EKARPENAK AITORTZEA ETA BALORATZEA

HELBURUAK	ADIERAZLEAK
E.A.1. Aitzindariak izan diren emakume kirolariei, idazleei, artistei ... aitortza egitea eta herriari zabaltzea.	-Urtean egindako aitortza-jarduera edo ekitaldi publikoen kopurua. -Aitortza jaso duten emakumeen kopurua -Ekintzetan parte hartu duten pertsona kopurua (generoaren arabera)
E.A.2. Kirol maskulinizatuetan nesken eta emakumeen parte-hartzea sustatzea.	-Neska eta emakumeen parte-hartzea sustatzeko urtean egindako ekimen kopurua. -Nesken eta emakumeen parte hartzearen bilakaera urtero.

2.EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

2.2. ARETXABALETAKO TXOKO FEMINISTA INDARTZEA

HELBURUAK	ADIERAZLEAK
E.A.3. Txoko Feminista herrira zabaldu eta ezagutzera eman.	<ul style="list-style-type: none"> -Txoko feminista ezagutzera emateko egindako ekimen kopurua. -Txoko feministaren parte-hartzearen bilakaera urtero. -Urtero txoko feministan lehen aldiz parte hartzen duten pertsona kopurua.
E.A.4. Herriko emakumeen aniztasunari eta interesei egokitutako programazioa antolatzea	<ul style="list-style-type: none"> -Emakume-talde desberdinetara egokitutako ekintzen kopurua (adinari, jatorriari, interesei... lotutakoak) -Txoko feministan egiten diren ekintzetan parte hartzen duten emakumeen profilen aniztasuna.
E.A.5. Neska gazteak Txoko feministara gerturatzea.	<ul style="list-style-type: none"> -Txoko Feministaren jardueretan parte hartzen duten neska gazteen kopurua. -Neska gazteak txoko feministara gerturatzeko egindako ekimen kopurua.
E.A.6. LGTBIAQ+ aniztasunari buruzko sentsibilizazio ekintzak programazioan txertatzea.	<ul style="list-style-type: none"> -Programazioan txertatutako LGTBIAQ+ kolektiboak eta aniztasunari buruzko sentsibilizazio ekintzen kopurua. -LGBTBIAQ+ kolektiboarekin elkarlanean garatutako ekimen kopurua.

2.EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

2.3. EMAKUMEEN ERREALITATEETARA GERTURATU IKUSPEGI INTERSEKZIONAL BATETIK

HELBURUAK	ADIERAZLEAK
E.A.7. Aniztasunean genero kontzientzia, autoestimua eta emakumeen autonomia sustatzen dituzten prozesuak sortu eta finkatzea. .	-Genero kontzientzia, autoestimua eta autonomia lantzen dituzten prozesu edo ekimen kopurua. -Prozesu horietan parte hartzen duten emakumeen kopurua eta profilen aniztasuna.
E.A.8. Emakumeen arteko sareak sortzea.	-Sortutako sare kopurua -Sare edo talde horietan parte hartzen duten emakume kopurua. -Sare horietatik sortutako ekimenak.
E.A.9. LGTBIAQ+ Emakumeen errealitatea kontutan hartzea.	-LGTBIAQ+ emakumeen errealitatea esplizituki jasotzen duten ekimen kopurua. -LGTBIAQ+ emakumeen ikusgarritasuna eta errealitatea zabaltzen duten komunikazio edo sentsibilizazio ekintzen kopurua

3.6.3.3. Gizarte Antolaketa bidezkoa, berdintasunezkoa eta jasangarria

3.GIZARTE-ANTOLAKETA BIDEZKOA, BERDINTASUNEZKOA ETA JASANGARRIA

3.1 ZAINTZEN EKONOMIA FEMINISTA

HELBURUAK	ADIERAZLEAK
G.A.1. Aretxabaletako zaintzen errealitatera gerturatzea, zaintza lanen balioa ikusaraztea eta sozialki aitortzea.	-Herriko zaintzen inguruko diagnostikoa egin da BAI/EZ -Zaintza-lanen inguruko sentsibilizazio eta ikusgarritasun ekintzen kopurua -Zaintza-lanen aitortzari buruz sortutako material edo komunikazio-baliabideen kopurua
